

STARTINNOVA

CEO3

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:

Kanalen bitartez lortzen dugu gure proiektua merkatu-segmentuetara iristea, gure balio-proposamena helarazteko.

Kanalen artean, honakoak bereiz ditzakegu gure kasuan:

1. **Komunikazio-kanalak:** Irratian eta telebistan gure produktua iragarkiko dugu.
2. **Banaketa-kanalak:** Espainia mailan banatuko dugu gure produktua kamioilarien bitartez, aldiz, Europa mailan banatzeko, 50eko funda kopurua izan beharko da gutxienez. Bertan ez ditugu gure denda fisikorik izango, beste denda batzuekin harremanetan egongo garelako gure produktua saltzeko.
3. **Salmenta-kanalak:** Gure bezeroek informazio gehiago behar baldin badute, edota dudaren bat edukiz gero, bi langile egongo dira deiak jasotzeko eta informatzeko prest egongo dira (943 555 222). Gainera, salmenta-puntuak (gure egoitza nagusia eta harremanetan egongo garen dendetan informazio gehigarria jasotzeko aukera izango dute). Bestalde, gure sare sozialetan egunero informazio berria, zozketa edota beherapenen berri izango dute (Instagram: @ceo3_bussines ; Facebook: CEO 3 by LBD).

Bezeroarekiko harreman-guneak dira kanalak, eta bost fasez osatuta daude:

1. **Pertzepzioa:** Gure produktua ezagutzera eramateko, hainbat bitarteko erabiliko ditugu, esaterako, panfletoak, telebista eta irratiko iragarkiak, sare sozialak...
2. **Erosketa:** Bezeroek erosteko bi modu izango dituzte: lehenengoa denda online-ren bidez, eta bigarrena, denda fisikoetan (bai gure denda fisiko propioa, baita harremanetan egongo garen dendetan ere).
3. **Entrega:** Espainia mailan, entrega epea aste batekoa izango da, baina zerbitzu Premium-a kontratatuz gero, bi lan-egunetan iritsiko da. Europa mailan, bi asteko epea izango da bezeroak produktua erosten duenetik iristen zaion arte. (Premium zerbitzua ere ahalko dute kontratatu).
4. **Salmenta ondorengoa:** Gure produktuak izango duen garantia bakarra, produktua egoera txarrean edo akats bat duen iristen bada izango da. Horretarako, iritsitako egun berean enpresarekin kontaktuan jarri beharko dute, egoeraren berri emanez (produktuaren irudia beharko da ziurtatzeko).